**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**

**Eranskina**

Hirugarren araua: uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak 9.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udalerri honetan egindako jarduera guztiengatik Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako tarifako kuota txikienak handitu egingo dira 1,40 koefizientea aplikatuz.

**ZERBITZU PUBLIKOENGATIK ETA ADMINISTRAZIO EGINTZENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. B) EPIGRAFEA. IGERILEKUAK**

**Eranskina**

EPIGRAFEKO TARIFAK

B) Igerilekuak:

1.- Sarrera, egunekoa (goiz edo arratsaldean):

- 12 urtetik gorakoek: 3,50 euro.
- Adinez txikiak (12 urtetik beherakoek): 1,00 euro.
- Haurrak (4 urte arte): dohain.
- Udalekuetako taldeak eta antzeko beste talde batzuk: astelehenetik ostiralera: % 50eko beherapena.

2.- Denboraldiko abonua (goiz eta arratsalderako):

- Familia-abonua: 42 euro.
- Pertsona batentzako abonua: 25 euro
- Udalerrian erroldatutakoentzako familia-abonua: 20 euro.
- Udalerrian erroldatutako pertsona batentzako abonua: 12 euro.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Comunión (Araba), 2006ko abenduaren 29a.– Alkatea, JESÚS BARREDO ARANA.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS**

**Anexo**

Regla Tercera: de conformidad con lo previsto en el artículo 9.2 de la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, para todas las actividades ejercidas en este término municipal, las cuotas mínimas de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, serán incrementadas mediante la aplicación sobre las mismas del coeficiente único del 1,40.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS. EPÍGRAFE B). PISCINAS**

**Anexo**

TARIFAS DEL EPÍGRAFE

B) Piscinas:

1.- Por entrada diaria en el recinto por mañana o tarde:

- De persona mayor de 12 años: 3,50 euros.
- De persona menor (hasta doce años): 1,00 euro.
- Niños hasta 4 años: gratis.
- De grupos de colonias y otros colectivos similares: de lunes a viernes: 50% descuento.

2.- Por abono de temporada (para mañana y tarde):

- Abono familiar: 42 euros.
- Abono individual: 25 euros
- Abono familiar empadronados en el municipio: 20 euros.
- Abono individual empadronado en el municipio: 12 euros.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Comunión (Álava), a 29 de diciembre de 2006.– El Alcalde, JESÚS BARREDO ARANA.

## LAPUEBLA DE LABARCA

**8.165**

**Iragarkia**

Udalak Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zerga Ordenantza aldatzeari hasierako onarpena ematea erabaki zuen 2006ko azaroaren 9an egindako bilkuran.

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (132 zenbakia, 2006ko azaroaren 17a) argitaratu zenez geroztik, espedientea jendaurrean egon den bitartean aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, ordenantzaren eranskina argitaratzen da.

Hiri ondasun higiezinak:
Karga tasa: 0,8 %.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Lapuebla de Labarca, 2006ko abenduaren 26a.– Alkatea, FRANCISCO CHÁVARRI GRIJALBA.

## LAPUEBLA DE LABARCA

**8.165**

**Anuncio**

El Ayuntamiento en sesión plenaria celebrada el día 9 de noviembre de 2006, acordó aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana.

No habiéndose presentado reclamaciones durante el periodo de exposición pública mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 132, de 17 de noviembre de 2006, se procede a la publicación del Anexo de la Ordenanza.

Bienes de naturaleza urbana:
Tipo de gravamen: 0,8 %.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Lapuebla de Labarca, a 26 de diciembre de 2006.– El Alcalde, FRANCISCO CHÁVARRI GRIJALBA.

## LEGUTIANO

**7.935**

Zaborra biltzeko zerbitzuarengatik 2007an ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko behin-behineko onarpenari buruzko iragarkia 2006ko azaroaren 17an argitaratu zen 132 zenbakiko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, aipatutako ordenantza behin betirako onartzen da, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN eranskin osoa argitara emanez, 2006ko azaroaren 10eko premiazko aparteko bilkuran erabakitakoa beteaz.

**ZABORRA BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**Eranskina**

| | |
|---|---|
| Etxebizitzak | 49,10 € |
| Local profesionalak | 49,10 € |
| Dendak | 98,10 € |
| ZERBITZUETARAKO LOKALAK: | |
| Altube Ostatua | 2.955,84 € |
| Guardia Zibilaren kuartela | 397,14 € |

## LEGUTIANO

**7.935**

Publicado anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 132, de 17 de noviembre de 2006, referente a la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Reguladora de la Tasa por prestación del Servicio de Recogida de Basuras para el año 2007.

Transcurrido el período de exposición al público sin que se hayan presentado reclamaciones, dicha Ordenanza queda definitivamente aprobada, publicándose el anexo íntegramente en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, en cumplimiento de lo acordado en la sesión extraordinaria urgente celebrada el día 10 de noviembre de 2006.

**ORDENANZA REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE RECOGIDA DE BASURAS**

**Anexo**

| | |
|---|---|
| Viviendas | 49,10 € |
| Locales Profesionales | 49,10 € |
| Comercios | 98,10 € |
| LOCALES DE SERVICIOS: | |
| Hostal Altube | 2.955,84 € |
| Cuartel de la Guardia Civil | 397,14 € |

| | |
|---|---|
| Paules Aitak | 406,32 € |
| Heziketa profesionalaren Istitutoa | 117,50 € |
| MM. Karmelitak | 117,50 € |
| Karitatearen Harrebak (viejo) | 117,50 € |
| Zarateren Karmelitak | 117,50 € |
| Markinako Apaiz Etxea | 117,50 € |
| Sarriako Aterpetxea | 117,50 € |
| Hipika | 97,90 € |
| Deportivo Alavesen instalazioak | 97,90 € |
| OSTALARITZA-KIROLAK: | |
| Txokoak | 137,36 € |
| Tabernak, Kafetegiak | 137,36 € |
| Sardexka bateko jatetxeak | 235,50 € |
| Sardexka biko jatetxeak | 294,20 € |
| Ostalaritza- Nekazal turismoa | 120,64 € |
| Hotela | 120,64 € |
| Adinekoentzako bizilekuak 20 pertsona arte | 120,64 € |
| Adinekoentzako bizilekuak 20 pertsona baino gehiago | 202,22 € |
| Kirolguneak | 406,32 € |
| INDUSTRIA: | |
| 500 m$^2$ bitartean | 108,54 € |
| 501 eta 1.000 m$^2$ bitartean | 397,02 € |
| 1.001 eta 3.000 m$^2$ bitartean | 608,44 € |
| 3.001 eta 10.000 m$^2$ bitartean | 912,66 € |
| 10.000 m$^2$ baino gehiago | 1.216,90 € |

Legutianon, 2006eko abenduaren 28an.– Alkatea, FRANCISCO RETEGUI AYASTUY.

## LEGUTIANO

**8.091**

Alkatearen Dekretuaren bidez, 2006ko abenduaren 20an emandakoa, jendaurrean jarriko da, iragarkia argitaratzen denetik aurrera hogei egun baliodunez, Ibarrako SR 1+2 sektorearen iparraldeko UE-ren garapenerako Hirigintza Kudeaketarako Hitzarmenaren eduki osoa, Legutianoko Ordezko Arauei dagokiena; Elosu-Alde, S.Coop. enpresak egin du proposamena.

Parte-hartzaileak: Francisco Retegui Ayastuy jauna, Legutianoko Udaleko alkate-lehendakaria, bere izenean, eta Gorka López de Briñas Saénz del Castillo jauna, Elosu-Alde, S.Coop enpresaren izenean. Enpresa hori Legutianoko Ordezko Arauetan jasotako Ibarrako SR 1+2 sektorearen iparraldeko UE-ren lurren % 72,87aren jabea da.

Itunak:

Lehenengoa.- Elosu-Alde, S.Coop. enpresak, Legutianoko Ordezko Arauetan jasotako Ibarrako SR 1+2 sektorearen iparraldeko UE-ren lurren % 72,87aren jabea, Kontzertazio Batzorde modura eratzeko konpromisoa hartzen du, legeak ezartzen duen moduan, hitzarmen hau sinatzen denetik hilabetera, gehienez ere.

Bigarrena.- Elosu-Alde, S.Coop. enpresak lurrak zatitzeko proiektua aurkeztuko du, batzorde horren bidez, batzordea eratzen denetik bi hilabetera, gehienez ere.

Hirugarrena.- Elosu-Alde, S.Coop. enpresak Legutianoko Udalari derrigorrezkoak diren lurrak eta ondasunak dohainik emateko konpromisoa hartzen du, legeak eta Ibarrako SR 1+2 sektorearen planeamenduaren agiriek ezartzen duten moduan.

Laugarrena.- Elosu-Alde, S.Coop. enpresak urbanizazioaren gastu guztiak ordainduko ditu, eta legeak, planeamenduak eta hitzarmen honek unitateari ezartzen dizkion urbanizazio lanak, azpiegiturak eta zerbitzuak burutuko ditu.

Gainera, hasieratik aurreikusten den sistema kooperazioa denez, Legutiano Udalak zenbait gastu hartu ditu bere gain, sektorearen garapenerako. Gastu horiek 84.160,35 euro izango dira. Elosu-Alde, S. Coop. enpresak, Kontzertazio Batzorde horren gehiengoaren jabea izango denez, gastu horiek guztiak batzorde horrek ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Bosgarrena.- Hitzarmen honetan jasotzen diren konpromisoak beteko direla bermatzeko, Elosu-Alde, S. Coop. enpresak konpromisoa hartzen du urbanizazioko gastuen % 7ko abala emateko Legutianoko Udalari, hura izenpetzen den unean.

Legutiano, 2006ko abenduaren 20a.– Alkatea, FRANCISCO RETEGUI AYASTUY.

| | |
|---|---|
| Padres Paules | 406,32 € |
| Instituto de F. Profesional | 117,50 € |
| MM. Carmelitas | 117,50 € |
| HH. de la Caridad (viejo) | 117,50 € |
| Carmelitas de Zarate | 117,50 € |
| Casa Cural de Markina | 117,50 € |
| Albergue de Sarriá | 117,50 € |
| Hípica | 97,90 € |
| Instalaciones Deportivo Alavés | 97,90 € |
| HOSTELERÍA-DEPORTES: | |
| Txokos | 137,36 € |
| Bares cafeterías | 137,36 € |
| Restaurantes 1 tenedor | 235,50 € |
| Restaurantes 2 tenedores | 294,20 € |
| Hospedería-Agroturismo | 120,64 € |
| Hotel | 120,64 € |
| Residencia Ancianos Hasta 20 pl. | 120,64 € |
| Residencia Ancianos más de 20 pl. | 202,22 € |
| Zona Deportiva | 406,32 € |
| INDUSTRIA: | |
| Hasta 500 m$^2$ | 108,54 € |
| De 501 a 1.000 m$^2$ | 397,02 € |
| De 1.001 a 3.000 m$^2$ | 608,44 € |
| De 3.001 a 10.000 m$^2$ | 912,66 € |
| Más de 10.000 m$^2$ | 1.216,90 € |

Legutiano, a 28 de diciembre de 2006.– El Alcalde, FRANCISCO RETEGUI AYASTUY.

## LEGUTIANO

**8.091**

Por Decreto de Alcaldía de fecha de 20 de diciembre de 2006 se ha acordado exponer al público durante un plazo de veinte días hábiles desde su publicación, al objeto de que puedan ser presentadas las oportunas alegaciones, el contenido íntegro del Convenio Urbanístico de Gestión para el desarrollo de la U.E. Norte del Sector SR 1+2 de Ibarra de las NN.SS. de Legutiano, propuesto por Elosu-Alde, S.Coop.

Partes: don Francisco Retegui Ayastuy, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Legutiano, en nombre y representación del mismo y don Gorka López de Briñas Saénz del Castillo, en nombre y representación de Elosu-Alde, S.Coop, propietaria del 72,87 % de los terrenos incluidos en la U.E. Norte del Sector SR 1+2 de Ibarra de als NN.SS. de Legutiano.

Pactos:

Primero.- Elosu-Alde, S.Coop., propietaria del 72,87 % del suelo incluido en al U.E. Norte del Sector SR 1+2 Ibarra de las NN.SS. de Legutiano, asume el compromiso de constituirse en Junta de Concertación, en la forma legalmente establecida, en el plazo máximo de un mes desde la suscripción del presente convenio.

Segundo.- Elosu-Alde, S.Coop. se compromete a formular a través de la citada junta el documento de reparcelación en el plazo máximo de dos meses desde su constitución.

Tercero.- Elosu-Alde, S.Coop. se compromete a ceder los terrenos y bienes de cesión obligatoria y gratuita, en los términos establecidos en la ley y en los documentos de planeamiento del Sector SR 1+2 Ibarra, al Ayuntamiento de Legutiano.

Cuarto.- Elosu-Alde, S.Coop. se compromete a asumir la totalidad de las cargas de urbanización y ejecutar las obras de urbanización, infraestructuras y servicios atribuidas a la unidad por la ley, el planeamiento y el propio convenio.

Además, dado que el sistema de actuación inicialmente previsto era el de cooperación, por el Ayuntamiento de Legutiano han sido asumidos diversos gastos en el desarrollo del sector cuyo importe asciende a 84.160,35 euros, Elosu-Alde, S.Coop., en cuanto propietaria mayoritaria de la futura Junta de Concertación, se compromete a que la citada Junta asuma el importe total de los citados gastos.

Quinto.- En garantía de los compromisos asumidos en el presente convenio, Elosu-Alde, S.Coop. se compromete a formalizar y entregar al Ayuntamiento de Legutiano un aval del 7% de la cuantía de las cargas de urbanización, en el momento de suscripción del mismo.

Legutiano, a 20 de diciembre de 2006.– El Alcalde, FRANCISCO RETEGUI AYASTUY.